



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12  
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Kartzela(n) idazten: emakume  
presoak, espetxeko izkribuak eta  
agentzia. Kasu baten azterketa**

*Maria Ruiz Torrado*

33-41 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.04>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



## **Kartzela(n) idazten: emakume presoak, espetxeko izkribuak eta agentzia. Kasu baten azterketa**

Ruiz Torrado, Maria

*AFIT. UPV/EHUko Antropologia Feminista Ikerketa Taldea*  
*maria.ruizt@ehu.eus*

### ***Laburpena***

Emakume presoentzat espetxea instituzio sexista, androzentrikoa eta diskriminatzailea da, generodesberdinkeriak eta genero-erlazio desorekatuak (bir)sortzen dituenz gero. Alabaina, kartzelaratuak emakumeek itxialdiak eta askatasun-gabeteak eragindako zailtasunei eta mugei –nola edo hala– aurre egiteko praktikak gauzatzen dituzte. Artikulu honetan, zehazki, idazketa aztertzen da espetxearekiko erresistentzia-jardunbide moduan. Horretarako, oinarri hartzen da *Kartzela genero-erakunde bezala: genero-bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean* doktore-tesia, eta, bereziki, preso baten kasua, Simone izena eman zaiona.

Hitz gakoak: Kartzela, generoa, emakume presoak, idazketa, agentzia.

### ***Abstract***

*Prison is a sexist, androcentric and discriminatory institution for women inmates which therefore (re)creates gender inequality and unequal gender relationships. Nevertheless, imprisoned women perform some practices of resistance in order to confront –in one way or another– the difficulties and limitations that imprisonment and loss of liberty cause. The current article analyses writing as a practice of resistance in prison. The analysis is based on a doctoral thesis entitled Prison as a gender institution: gender inequality, practices of resistance and agency among women inmates in the Basque Country, and special attention is given to the case of an inmate who has been named Simone.*

*Keywords: Prison, gender, imprisoned women, writing, agency.*

### **1. Sarrera eta motibazioa**

Artikulu honek oinarritzat dauka bukatu berri dudan doktore-tesia; hau da, *Kartzela genero-erakunde bezala: genero-bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean* ikerketa (2016), jomuga izan duena emakume preso sozialen esperientzietan barrentzea eta haien agentzia<sup>1</sup> nabarmentzea. Aitzitik, era berean, ohargarria da horrek aurretik egindako beste ikerlan bat duela abiapuntu: hain zuzen ere, taldean egindako<sup>2</sup> *Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía* (2012), xedetzat izan zuena kartzelan egondako emakumeen zailtasunak eta desabantailak jorratzea. Bietan izan dira ikergai Euskal Herriko presondegietan izandako hainbat emakumeren kontakizunak. Artikulu honetan, zehazki, hizpide izango ditut doktore-tesiaren testuinguruan elkarrizketatutako Simonek<sup>3</sup> kartzelan idatziriko testu batzuk. Horretarako, aurretik, ikerketaren nondik norakoak kokatzen ahaleginduko naiz.

Laburki esanda, honakoek osatzen dute doktore-tesiaren ikerketa-objektua: espetxeratutako emakumeek giltzapean izandako bizipenek, jasandako genero-bereizkeriek eta gauzatutako erresistentzia-praktikak; betiere, kartzela genero-erakunde bezala hartuta, hots, espetxe-sistema genero-ekoizlea dela argudiatuta, generoa sortzen eta birstortzen duen heinean. Konkretuki, abiaburu dut genero-azterketarik gabe ezin dela espetxe-sistema sakon konprenitu; alde batetik,

<sup>1</sup> Sherry B. Ortner (2006) antropologoak definituriko moduan erabiltzen dut “agentzia”, honakoa adierazteko: gizarte-harremanen baitan, norbanakoek betiere duten ahalmena edo gaitasuna, bai eremuan jokatzeko, bai elkarri eragiteko, baita boterea negoziatzeko eta, beraz, egoerak aldatzeko ere. Autoreari segituz, agentziaren gakoa nahitasuna da, berariazko praktiken bitartez –kontzienteagoak nahiz inkontzienteagoak izan–, aktore sozialek euren proiektuen edota egitasmoen lorpena bilatzen baitute, kulturalki eraturako asmoen, desioen, jomugen, premien, usteen zein ezagueren arabera; nahiz eta, betiere, posibilitate-baldintza jakinen barnean –egiazko hertsapenak, mugak eta murrizketak daudenez gero–.

<sup>2</sup> Honakoak izan ziren nire taldekideak: Miren Arbelaitz, Edurne Bengoetxea, Alma Méjome eta Laura Vara.

<sup>3</sup> Elkarrizketatuaren konfidentzialtasuna ziurtatzeko, fikziozko izena erabili dut.

genero-eredu hegemonikoen ondorioz, emakumeek eta gizonak modu ezberdinean bizi dutelako giltzaperatzea; eta, bestetik, kartzela-sistema errotik guztiz sexista, androzentrikoa bezain diskriminatzailea delako, genero-rol tradizionalak zein erlazio hierarkikoak indartzen dituenz gero. Horrela izanik, lehenik eta behin, doktore-tesiak emakume presoek bizipenak, ibilbideak, aldaketak nahiz ikaskuntzak aztertzen ditu; bigarrenik, genero-desberdinkeriak jorratzen ditu; eta, azkenik, itxialdiak dakartzan zailtasunei eta mugei aurre egiteko erresistentzia-praktikak lantzen ditu, agentziaren gaiari hartuta. Azken batean, ez dut espetxealdiaren baitako genero-zapalkuntza edota izaera murriztailea inolaz ere baztertu nahi; alabaina, ezta emakume presoek egoerari nola edo hala aurre egiteko gauzatutako eginahalak ukatu edota gutxietsi nahi ere – horien nolakotasuna zeinahi ere izan-. Beraz, hiru ardatz horietan sakontzen saiatu naiz, Hego Euskal Herrian kartzelatutako emakumezko preso sozialen nondik norakoak ikertuta.

Hainbat arrazoiek aztergai hori lantzea behar-beharrezkoa egiten dutela esango nuke. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar dugu emakume preso sozialak nahiko ezezagunak direla euskal jendartearen zati handi batentzat; eta, horrenbestez, beraien bizipenak, oro har, ahaztutako nahiz gutxi jorratutako ikerketa-eremuak direla. Beraz, bai ikusezintasuna bai ezjakintasuna agerikoak dira. Baina, halaber, nabarmenak dira aurreiritziak, estereotipoak eta era askotariko ikuspegi negatiboak ere. Batzuen zein besteen ondorioz, kartzelaratuak emakumezkoek estigmatizatze izugarria bizi dute; esan nahi baita, gizarte-gaitzespen eta zaurgarritasun nabarmena pairatzen dutela. Dударik gabe, nahitaezkoa da bestelako usteak edota jarrerak bultzatzea, bai errespetua bai aintzatespena giltzarri hartuta, eta kriminalizatzea zein bazterketa soziala alboratuta.

Bigarrenik, testuinguru penalaren eta espetxearen aldaketak ere aintzat izan behar ditugula uste dut. Izan ere, eraldaketa handiko egunak bizi ditugu; dela kontrol-politiken handiagotzea, preso-kopuruaren areagotzea<sup>4</sup> edota Kode Penalaren erreforma, dela Iruñeko eta Zabaiako makrokartzelen eraikuntza edo bestelako diziplinazko erregimenen hedapena. Nolanahi ere, argi dago markoa itxuraldatzen ari dela eta, ezinbestean, generoaren esparruan ere aldakuntzak ari direla gertatzen. Horrenbestez, premiazkoa da jazotzen ari denari erreparatzea; itxialdiaren zein askatasun-gabetzearen inguruan hausnartzea nahiz espetxeratzeak dituen funtzioen, ondorioen, eraginaren eta esanahien gainean gogoeta egitea.

Hirugarrenik, eta azkenik, hutsune handi bat gaingitu beharrean gaudela ere aipatuko dut; bada, espetxea genero-ikuspegitik aztertzerakoan, gabezia nabarmenak egon dira boterearen eta erresistentziaren arteko hartu-emanen dagokienez, eta, ondorioz, emakumezko atxiloen agentzia gehienetan gutxietsia nahiz ezkutatua izan da. Nire planteamenduaren arabera, behin eta berriro utzi dira alde batera kartzelaratuak emakumeen ekintza-gaitasuna eta transformazio-ahalmena; salbuespenak salbuespen (Bhavnani eta Davis, 1996; Bosworth, 1999; Nari eta Fabre, 2000; Ribas et al., 2005), haien trebetasunak ez direlako aintzatetsi, ez baloratu, edota, are gehiago, zenbaitetan, ez direlako imajinatu ere egin. Beraz, isilarazitako errealitate baten aurrean gaudela esan genezake; hori dela eta, emakumezko presoek egiten dutenaren eta jendarteak hautematen duenaren artean ikaragarritzko aldea dago. Espetxe-sistemari buruzko ikerlan gehienek soilik instituzioaren botereak presoengan duen eragina hartu dute kontuan, haien ekintza-ahalmenari erreparatu gabe eta genero-ikuspegia erabili gabe. Halaber, ikerketa feministen eta generoaren baitan egindako lanek ere ez diete garrantzi gehiegirik eman emakume atxiloen praktika jakinei; presondegiatiko diskriminazioen zein desberdinkerien azterketari ekin diotelako, nagusiki. Argi dago, inolako ezbaierik gabe, kartzela-sistemaren baitan gauzatzen diren bidegabekeriak ikertzea eta salatzea nahitaezkoa dela; baina funtsezkoa da harago joan daitekeen begirada feminista ere ahalbidetzea, biktimizatzailea suerta daitekeen edozein ikuspuntu bazter utzita. Emakume preso sozial gehienak zaurgarriak diren edo bazterketa-egoeran dauden taldeetakoak dira<sup>5</sup>, eta, horrela izanik, iruditeria kolektiboak ezguzak, ezjakinak edo abileziarik gabeak izango bailiran ikusten

<sup>4</sup> Aipagarria da Hego Euskal Herrian kartzelatutako zenbatekoak proportzionalki Europako altuenetariakoak direla eta egitate hori are nabarmenagoa dela emakumeen kasuan. Izan ere, 2017ko urtarrilean, emakumeak presoek guztizkoaren %9,88 ziren (152 emakume) (<http://www.institucionpenitenciaria.es>); eta Europako azken urteotako batez bestekoa, ordea, %4,9ren inguruan dabil (Walmsley, 2012; Aebi eta Delgrande, 2013).

<sup>5</sup> Azpimarragarria da emakume atzerritarren, ijitoen eta droga-kontsumitzaileen espetxe-gainordezkapena.

ditu; errealitatea oso ezberdina izan arren. Hortaz, garrantzitsua da bestelako norabide batzuetan lan egitea eta agentziaren dimentsio anitzetan sakontzea.

Aipatutako ikerketa-objektua eta interesak miran, doktore-tesian lanean egon naiz 2013ko urtarriletik. Ikerlana osatzeko, metodologia kualitatiboa jarraitu dut, lehen mailako eta bigarren mailako informazio-iturriak baliatuta. Alde batetik, ikergaiarekin lotutako hainbat irakurketa bibliografiko egin ditut; bestetik, behaketa-lana eta elkarrizketa sakonak. Dударik gabe, azken horiek gako izan dira niretzat, testigantzak jasotzea eta aktore sozialen ahotsa zuzenean entzutea betiere zinez aberasgarria delako. Guztira, hogeita hamasei elkarrizketa osatu ditut; banakakoak gehienak, taldekoak gutxi batzuk. Gehientsuenak atxilo egondako emakumeei egindakoak izan dira; baina elkarrizketatu ditut espetxeetako hainbat langile, presoekin zuzenean edo zeharka lan egiten duten eta nolabaiteko genero-ikuspegia duten elkarteetako zenbait kide, baita feministak diren EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboko atxilo ohi batzuk ere<sup>6</sup>.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Gutxitan ikertutako gaia izan da emakume presoen espetxeko bizipenena<sup>7</sup>. Hala ere, ezin ukatuzkoa da nabarmengarriak diren hainbat ekarpen burutu direla bai antropologiatik bai soziologiatik, baita ikerketa feminista eta generokoetatik ere; kasu baterako, giltzapetutako emakumeek pairatutako estigmatizatzea nahiz kartzelako diskriminazioak landu baitira.

Estigmaren nondik norakoei dagokienez, kontuan izan behar dugu, teoriarik, legearen aurrean emakumeen eta gizonen artean balizko berdintasuna egon arren, begi-bistakoa dela praktikan, egunerokotasunean, ezberdintasunak eta desorekak daudela batzuen eta besteen artean. Ikuskera sozialak zinez bestelakoak dira, eta, genero-eredu hegemonikoen ondorioz, emakumeen arau-haustea eta gizonenak ez dira modu berean ulertzen, ezta baloratzen ere (Juliano, 2009, 2011). Oro har, lehenengoan transgresioak zorrotzago epaitzen edota zigortzen dira (Davis eta Faith, 2002), eta, delituen kasu zehatzean, gizarte-gaitzespena agerikoa da; nolabait, ekintza emakume batek egin izanak gertatutakoa larriagotuko balu bezala. Azken batean, badirudi gizartearen zati handi batentzat emakumeen delituzko ekintzek hutsegite astunagoa dakartela, lege penalak haustearekin batera, arau sozialak ere urratu dituztelako (Juliano, 2009, 2011). Hori dela eta, estigmatizatzea izugarria izango da; estigma ez baita soilik delitugile bezala izango, “emakume delitugile” gisa baizik (Herrera, 1993). Etiketa pisutsu horren ondorioak izango dira errespetua, begirunea zein zilegitasuna ukatzea, eta zaurgarritasuna eta babesgabetasuna areagotzea; edo, bestela esanda, balio-galera, gutxiespena nahiz mespretxua, eta diskriminazioen nahiz gizarte-desberdinkerien gehiagotzea (Juliano, 2004).

Itxialdi penalarik baitako bereizkeriei buruz, azpimarratu behar dugu, hasieran adierazi bezala, sistema erabat sexista, androzentrikoa zein diskriminatzailea dela emakumeentzat. Izan ere, botere-egitura eta eredu hegemonikoen sostenguari lotuta, genero-rol tradizionalak eta harreman hierarkikoak sustatzen ditu, genero-desberdinkeriak handiagotuta (Almeda, 2003; Del Val eta Viedma, 2012). Laburki esanda, presondegien artean ezberdintasun nabarmenak egonda ere, kondena betetzean, emakumeentzat honakoak dira nagusi: bai sakabanaketa geografiko bai pilaketa handiagoak, eta bizigarritasun-baldintza okerragoak, beraientzako zentro eta modulu gutxiago egotearen kausaz; baliabide eskasagoak eta azpiegitura batzuk erabiltzeko mugak, gizonen lehentasuna ematearen ondorioz; “etxekotzea” eta “feminizatzea” bultzatzen dituzten tailerrak nahiz ikastaroak (jorsketa, jantzigintza, broderia, makillajea, ile-apainketa, etab.);

<sup>6</sup> Zehatz-mehatz, kopuruak honakoak dira: banakako hogeitasei elkarrizketa emakume preso sozialei, eta talde-elkarrizketa bat haietako lauri; banakako nahiz taldeko sei elkarrizketa kartzelatako langileei (hiru gizarte-langile, hiru irakasle, bi gizarte-hezitzaile, bi jurista eta psikologo bat); banakako edo taldeko sei elkarrizketa emakume presoekin lan egiten duten elkarteetako kideei; eta banakako hiru elkarrizketa EPPKko kide ohiei.

<sup>7</sup> Azken hamarkadetararte, euskal testuinguruan ez da gehiegi jorratu emakume presoen gaia, salbuespenak salbuespen (Forest, 1975, 1979; Aretxaga, 1995, 1996, 1997; Alcedo, 1996). Alabaina, nazioarteko esparru akademikoan, nabarmengarriak dira 1970eko hamarkadatik kriminologia kritikoak eta generokoak egindako ekarpenak; batik bat, Estatu Batuetako nahiz Erresuma Batuko zenbait autoreren lanak (Adler, 1975; Smart, 1976; Carlen, 1983, 1985, 1988; Heidensohn, 1985; Dobash, Dobash eta Gutteridge, 1986; Eaton, 1986).

kartzelako lanpostu urrien kasuan, soldata baxuagoak, okerren ordaindutako zereginetan aritzeagatik; esanekotasun eta mendetasun agerikoagoen eskakizuna; medikalizatze handiagoa; etab. Horrelako testuinguru batean, ezinbestean, emakumeen desabantailak eta zailtasunak ugaritu egiten dira (Almeda, 2003).

Hala, espetxeratutako emakumeen egoeraren inguruan egindako horrelako lanak aintzakotzat hartuta, jadanik zerrendatutako interesen harira eta azaldutako ikerketa-objektuari helduta, ondorengoak izan dira doktore-tesiaren helburu nagusiak:

- Kartzela genero-erakunde bezala aztertzea, eta bere jarduera zein esanahien gainean gogoeta egitea; ezarritako sistemaren eta arauen sostenguari lotuta, espetxe-sistemak emakumeen eredu hegemonikoa eta rol tradizionalak nola bultzatzen dituen, eta, modu horretan, harreman desorekatuak, bereizketa hierarkikoak zein diskriminazioak nola gehitzen dituen jorratuta; betiere, aldaketa handiko testuinguruan gaudela ahaztu gabe.
- Emakume presoen espetxeko bizipenen berri izatea, emakumeek eurek bizi dutenaren inguruan pentsatzen dutena eta esateko dutena jasota; egon daitekeen aniztasuna bazter utzi gabe, haien iritziak eta usteak, jarrerak, portaerak zein ekintzak, diskurtsoak nahiz jarduteak landuta, haien irakurketetara edo interpretazioetara hurbilduta.
- Kartzelatutako emakumeen agentzia azalerratea, itxialdiak zein askatasun-gabetzeak eragindako oztopoak edo zailtasunak gainditzeko gauzatutako erresistentzia-praktiken azterketaren bitartez; espetxe-sistemaren izaera murriztailea abiapuntu hartuta, nola hala ondorioak arintzeko nahiz genero-zapalkuntzari kontra egiteko bideak jorratzea.

### 3. Ikerketaren muina

Adierazi bezala, artikuluko honen ardatz den doktore-tesia bukatu berri dut. Bertan lortutako emaitzen erakusgarri, ikerketan elkarrizketatutako emakume baten kasuan sakonduko dut: Simoneren istorioan, hain zuzen ere. Batetik, eta labur bada ere, espetxealdiak ekarri dizkion arazoak islatzen ahaleginduko naiz; bestetik, horiei –neurri batean, bederen– aurre egiteko erabili duen praktiketako batera hurbiltzen saiatuko naiz. Baina, beste ezer baino lehen, Simoneren esperientzia ulertzeko nahitaezkoak suertatzen diren iruzkin batzuk egingo ditut.

Hasteko, ohargarria da Simone emakume atzerritarra dela. Martuteneko kartzelan (Gipuzkoa) sartu baino lehen, Euskal Herrian bizi zen; haatik, ez zuen gizarte-sostengu gehiegirik bertan. Nahiz eta ez dudana bere kasua arrazoi horregatik hautatu, bere istorioaren argitasuna eta zehaztasunagatik baizik, begietan izan behar dugu gizarte-errotzerik gabeko egoera batean egoteak dakarren guztia. Hainbat ikerlanek (Ribas et al., 2005; Imaz eta Martín-Palomo, 2007) adierazi dutenez, jatorri atzerritarreko emakumezkoek zaurgarritasun handia bizi dute, gainordezkatuta daude espetxeetan<sup>8</sup> eta diskriminazio espeziakoak pairatzen dituzte, “nazionalak” ez izatearen kausaz. Gehienetan ez dute bisitarik jasotzen, ezta inolako laguntza ekonomikorik ere; maiz, gizarte-sustraitzea frogatzeko zailtasunak dituztenez, arazoak izan ohi dituzte baimenak, hirugarren gradua (erregimen irekia) zein baldintzapeko askatasuna ere lortzeko; euren jatorrizko herrialdeekin harremanetan jartzeko trabak ere aurkitu ohi dituzte, ordu-diferentzia ez delako kontuan hartzen, deien diru-kostu altua aintzat hartzen ez den bezalaxe; eta, hori gutxi balitz bezala, asko egoera irregularrean daude, eta, kartzelatik irtetean, lurraldetik kanporatuak dira eta Schengen Itunaren baitako edozein herrialdera<sup>9</sup> joateko debekua jasotzen dute, oro har hamar urteko epean. Horrelako egitateak kontuan izan behar ditugu Simoneren kasua behar bezala ulertzeko.

Era berean, elkarrizketatuari buruzko gutxieneko argibide batzuk ezagutzea komeni zaigu. Horrela, trazu orokor batzuk emanda, zehaztuko dut Simone atxilotu eta espetxeratu zutenean, epaiketa amaitu

<sup>8</sup> Hego Euskal Herriko datuak ez daude eskuragai, baina erreferentziaren bat ematearren, 2017ko urtarrilean Espainiako Estatuan emakumeen totalaren %28,86 zen atzerritarra (<http://www.institucionpenitenciaria.es>).

<sup>9</sup> Gaur egun, Europako hogeita sei estatu daude Schengen Itunaren: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Hungaria, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Malta, Norvegia, Polonia, Portugal, Suedia, Suitza eta Txekiar Errepublika.

zenetik hainbat hilabete igarota zeudela. Judizio horretan, epaileak osasun publikoaren aurkako delitua frogatutzat jo zuen. Hartara, lau urteko espetxe-zigorra zegokion Simoneri. Alta, kondena horren ordezt Espainiako Estatutik alde egiteko agindua eman zion epaileak, egoera irregularrean baitzegoen<sup>10</sup>. Arazo penalak bazter uzteko aukera ona izan zitekeen Simonerentzat, eta horrelaxe jakinarazi zioten Brasilgo senitartekoek, bai aitak, baita ahizpak ere etxera itzultzeko erregutu baitzioten. Simonek baina, ez zuen modu horretan bueltatu nahi. Ez zuen leporatutako lege-haustea egin eta lotsagarria iruditzen zitzaion etxerako bidea horrela egin behar izateak. Hortaz, ofiziozko abokatuari helegitea jartzeko eskatu zion; baina, agidanez, hark ez zuen egin. Simone ez zen inoiz egon guztiz lasai kontu horrekin; edonola ere, ez zuen bere burua giltzapean irudikatu behin ere ez. Hainbat hilabete iragan ziren judiziotik, berririk gabe, eta auzia konponduta zegoela pentsatzen zuen. Are gehiago, akaso, polizia topaturiko kokaina-poltsak bereak ez zirenez ohartu izango zirela ere okurritu zitzaion. Alabaina, ez zen hori gertatu; eta, azkenean, hilabete batzuk geroxeago, beste hiri batean zegoela eta beste enplegu bat zuela, Ertzaintzak Simone atzeman eta kartzelaratu zuen, epaia hausteagatik. 2009ko irailaren 1ean, 32 urte betetzekotan zegoela, Martuteneko espetxean itxi zuten. Ez zen atera urte eta hiru hilabete igaro arte, hirugarren gradua lortu arte. Gaur egun, behin betiko askatasunean dago; baina ez da “libre” sentitzen, berriro ere kanporatze-agindua baitu.

Preso sartzeari zinez estugarria izan zen Simonerentzat. Ez zuen gertatzen ari zena ulertzen, eta lotsa, babesgabetasuna zein bakardadea sentitzen zuen. Hutsaren hurrengo uste zen eta bere buruak nazka ematen zion. Ateak ixten gogoan zituen une oro, bizitza ere ixten ari zitzaizkiola pentsatzen baitzuen. Era berean, senideez ere oroitu zen izugarri, beretzat oso inportanteak izanik. Beldur zen, senitartekoek ez zutelakoan gehiago errespetatuko, biziki huts egin zuelakoan eta euren konfiantza hautsi zuelakoan; nahiz eta hastapenetik euren babesa izan zuen –eta horrelaxe izaten jarraitu zuen espetxean pasatutako denbora osoan zehar–.

Kartzelan sartzean, bost minutu baino ez zituen izan bere ahizpari deitzeko Brasilera eta espetxean zegoela azaltzeko. Ezin izan zuen harekin berriz ere hitz egin astebete pasatu zen arte. Tarte horretan, nolabaiteko eskutitza idatzi zion; ahizpa hartzailetzat zuen egunkari moduko zer edo zer. Horretarako, presondegiko Sartze Moduluan eskura zuen euskarri bakarria erabili zuen: *post-it* urdin txiki batzuk. Horietan, Simonek jakinarazitakoaren arabera, ahizpari esan nahi zion agertu zuen, nahiz eta benetan ez zen hori guztia adieraztera atrebitzen eta ez zuen sekula idazki hori bidaltzeko egiazko intentziorik izan. Letra xehez eta alde bietan izkiriaturiko zortzi papertxotan, bere sentimendurik sakonenak azaldu zituen.

Ikus dezagun testua<sup>11</sup>:

*“09/09/01 Karolina<sup>12</sup>, ez dakit zer esan kartzelan nago beste hiru pertsonekin oso tristea da zuk esan bezala azkenean Joxepa<sup>13</sup> gabe gelditu naiz, ezer gabe kartzelan inorekin hitz egiteko aukerarik gabe eta kanpoan inor izan gabe zu izan ezik munduaz bestalde.*

*Beti ere hau ez zela gertatuko pentsatu nuen ez laster zurekin etxean egongo nintzelako baina nirekin gauzek ez dute horrela funtzionatzen eta hemen nago negarrez gertatuko denaren beldur, ez dakit Joxepa nola dagoen, dagoeneko ez dut malkorik eta beldurrak airean nago hemen denbora amaigabea delako ordua ez da igarotzen orain kartzelan nago benetan arauak daude edozertarako, denek begiratzen dizute baina denek errudunak ez izan arren zigortuta bukatzen dute ni zigortuta sentitzen naizen bezalaxe bene-benetan ez dakit hau jasateko gai naizen, hiltzeko gogoia dudala aitortzen dut baina ez dago modurik, hemen ez dutelako hiltzeko modurik, une honetan gehien desiratzen dudana zu biziki besarkatzea da, baina errealitatea bestelakoa da”.*

<sup>10</sup> Espainiako Estatuan egoteko baimenik ez duten atzerritarrei sei urte baino gutxiagoko espetxe-zigorra ezartzen bazaie, zehapenaren ordeztoko kanporatzea aplikatu dakieke. Alta, kanporatzeaz gainera, Schengen Eremura itzultzeko debekua jartzen zaie hiru eta hamar urte arteko epean –gehienetan, hamar urtekoan–.

<sup>11</sup> Jatorrizko testua portugesez idatzita dago. Euskarazko itzulpena nirea da.

<sup>12</sup> Idazkian agertzen diren izen guztiak ere fikziozkoak dira. Karolina Simoneren ahizpari jarritako izena da.

<sup>13</sup> Simone atxilotu zuten unean, Joxepa deitu dudana adineko emakume baten barneko zaintzailea zen.

“09/09/02 Ka[rolina], honek guztiak surrealista dirudi nola pentsa nezake horrelako zerbait pasatuko nuenik denetarik topatzen dut eta gauza guztietarako arauak dituzte uste dut espetxe-sistemak ez duela munduko herrialde bakar batean ere funtzionatzen lehenik eta behin denak elkarrekin daudelako delitu-sailkapenaz ari naiz ez dakit zenbat jasan dezakedan. Baina egia da azkenean ezer gabe amaitu dudala eta ez dakit zenbat geratuko naizen hemen baina ez dakit jasateko estrukturarik dudan. Ez dut ezertarako gogorik... Eta dena oso astuna da”.

“09/09/03 Guztiz nahigabetuta nago zurekin hitz egin nahi dudalako eta ez dutelako telefonoa libre uzten, hemen arau asko dituztelako eta guztia pertsona-motari dagokionez eta ondo portatu behar dute denarekin eta denekin, denek jakin nahi dute zergatik zauden hemen zer egin duzun eta egia esan ez dut ezertarako gogorik amesgaizto baten modukoa delako dena edo are eta okerrago ez dut zereginik denbora hemen eromena da eta gutariko bakoitza unibertso bat da bere ñabardurekin, bere jarrerekin bere izaera eta hala diot hau dena igarotzeko luzea eta zaila iruditzen zaidala.

Ez dago deus argi eta umore-oszilazioa erabatekoa da, denetik dago hemen eta isiltasuna da kartzelako legea eta edozertarako araua betetzea ezin da ezer esan ezta jendeari gehiegi begiratu ere eta denak jolasten daudela ematen du egin dezakezun gauza bakarra beti isilik egotea da eta ez begiratzea bakoitzak bere informazioa du eta inork ez daki ezer dena eskaeren bidez egiten da eta ez dizu inoiz inork ezer ondo azaltzen eta dena baloratzen ikasten duzu baina ez diot inoiz utzi funtsezkoena baloratzeari zugarako maitasuna da. Eta honen guztiaren ondoriozko lotsa”.

“09/09/04 Itxaropen apur bat erabiltzen ari naiz hemen laster aterako naizela pentsatuz ez dakit nahiago dut hori pentsatu bestela egunero hil egiten naizelako gehien akabatzen nauena nire ahizparekin ezin hitz egitea da etsita egongo da ez dakit zer gertatuko den ziurtasunez ez dut abokatuarekin hitz egin arte jakingo bihar Ane<sup>14</sup> ikusiko dut, Joxepa zentro batean dago aldi oro eta ni orain hemen nire ahizpak esan zuen bezala Joxepa gabe, ezer gabe ea lortzen dudan Ane nire ahizparekin eta Terezarekin<sup>15</sup> harremanetan jartzea lagun diezadakeen bakarra baita ea zenbat denbora gehiago irauin dezakedan dena oso gogorra da”.

“09/09/05 Gaurko eguna azkarrago igaro da Ane ni ikustera etorri da negar asko egin dut baina geroago pasatu zait Zeldak batean nago dagoeneko eta bihar igandea da ikusiko dugu ea zer gertatzen den oraindik dena surrealista dirudi txiste batzuk kontatu dizkiet hemen dauden neska brasildar batzuei hemendik ahal bezain laster irtetea espero dut ea zer dioen abokatuak momentuz asko ikasiko dut”.

“09/09/07 Atzo ez nuen ezer idatzi zeldaz aldatu ninduten nik ezer esan gabe agindua zela esan zuten beraz men egin behar nuela, baina izugarritzko ikuskizuna izan zen bertan zeuden neskek aldaketa nik eskatu nuela pentsatu zutelako laburbilduz sekulako liskarra orain brasildar batekin eta bi espainiarrekin nago hitz batez nahi gabe nahaste batean sartuta nengoen bilatu gabe ez da ezer gertatzen ea hemendik lehenbailehen ateratzea lortzen dudan abokatu bihar itzuliko da oportetarik orduan laster zerbait lortuko dudala uste dut... Gero eta gehiago maite zaitut Karolina eta hemendik irteten naizenean elkartuko gara eta gauza berriak biziko ditugu, zure falta sentitzen dut...”.

Antzeman daitekeenez, Simoneren narrazioa oso bizia da: puntuazio-zeinuak falta dira eta azkar idazten du. Nolabaiteko “larrialdi narrazioa” (Curcio, 2011) dirudi, eta bere gogo-aldarte argi islatzen du. Bakarrik sentitzen da, triste, izututa bezain estututa. Gertatutakoaren erantzule dela uste du eta dena alferrik galdu duelakoan dago. Urduri dago bere senitartekoen nahiz zaintzen zuen adineko emakumearen egoeratik, baita bere egoeratik ere, bizi duen ziurgabetasuna dela eta. Karolina bere ahizparenganako maitasuna adierazten du eta kartzelatua izatearen ondoriozko lotsa azaltzen dio. Behin eta berriro giltzapetzea jasateko kapaz izango den ala ez duda egiten duela erakusten du, eta hiltzeko gogoia ere baduela aitortzen du –aurreneko asteetan, hirutan ahalegindu zen bere buruaz beste egiten–. Sentimendu horiek guztiak egunerokotasunari eta kartzelaren funtzionamenduari buruzko deskribapen xumeekin nahasten dira. Orokorrean, espetxea surrealista iruditzen zaio, zentzugabea eta amesgaizto baten parekoa. Marko horretan, idazketa adierazpenerako modua da Simonerentzat; bere ahizpari esan nahi dioen eta, minaren ondorioz, esatera ausartzen ez den hori guztia kontatzeko bidea.

<sup>14</sup> Simoneren ofiziozko abokatuak.

<sup>15</sup> Simoneren laguna.

Ohikoa da, genero-eredu hegemonikoen eta genero-sozializazioaren kausaz, emakumeek sufrimendu eta ezinegon handiz bizitzea espetxealdia, baita lotsa, erruduntasuna, senideei huts egin izana eta beren ardurak behar bezala bete ez izana sentitzea ere (Juliano, 2011). Horrela izanik, badirudi sentimenduak paperean jartzea lagungarria dela Simonerentzat, ondoeza zein komunikazio-eragozpenak gainditzeari dagokionez. Idazketa adierazpen-bide bezala hartuta, espetxean sentitzen duen ahalkeari, bakardadeari eta beldurrari aurre egiteko saialdia egiten du Simonek, nahiko modu inkontzientean jazotzen bada ere. Hala, emakume presoen estigmatizatzearen ondorioak arintzeko urratsak egiten ditu, horretaz ia jabetu gabe. Era berean, gizarte-babes hurbilik ez izatetik eratorritako zaugarritasunari ere heltzen dio; bere ahizpa testuaren hartzaile aukeratuta, nolabaiteko presentzia sinbolikoa ematen baitio, egiaz ezinezkoa den hurbiltasuna eta komunikazioa sortuta.

Ezin dugu ahaztu idazketa –zentzu zabalenean ulertuta, askotariko adierazpenak barne hartuta– garrantzi handiko gertakaria izan dela betidanik itxialdian. Espetxeko bizipenen inguruan idatzi duten emakumeen zerrendak garai eta herrialde anitzetako egileak biltzen ditu, marko zeharo diferenteetan atxilotutakoak, zio guztiz ezberdinengatik ere (Davis, 1972; Forest, 1975; Palou, 1975; Falcón, 1977; Doña, 1978; Cuevas, 1985; al’Sadawi, 1988; Shakur, 2001; Cabrera, 2011; López Riaño, 2012; Heras, 2014; Kerman, 2014; Eizagirre, 2016). Askotariko genero literarioak erabili izan dira, fikziozko nahiz fikziozkoak ez diren testuak, lehen zein hirugarren pertsonan idatzirikoak, hainbat gai landuta; besteak beste, emozioak (samina, maitasuna, bakardadea, tristura, ezinegona, etab.), askatasuna edo espetxeko egunerokotasuna. Lan batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak ezberdintasun, idazketak itxialdiari aurre egiteko erresistentzia dirudi guztietan, hots, murrueetatik kanpoko eremuarekin komunikatzeko adierazpen-bidea. Iratxe Retolaza (2014) literatura-kritikariaren iritziz, idazketa norbanakoek euren izatea garatzeko erreminta aberatsa izan daiteke, bat-beran sakontzeko tresna, norbanakoaren ahotsa entzunarazteko, jendarteak usu ukatutako egonguneak lortuta.

Simoneren kasuan, bestelako posizioan kokatzeko nahia egiaztatu dezakegu, kartzelan egotearen ondoriozko erruduntasun-sentimenduak eta lotsak eragindako komunikazio-zailtasunak gainditzen ahalegintzen baita. Idazketa sufrimendua kudeatzeko baliagarri zaio, sentitzen duena izendatzeko eta adierazteko, baita Karolinari esan nahi diona praktikatzeko ere. Simonek hitz egiteko nahiera du, eta mingarria izan arren egiten du. Argi eta garbi azaleratzen da agentzia; eremuan jokatzeko eta eragiteko gaitasuna, egoerak eraldatzeko ahalmena. Testuingurua zinez hertsatzailea izanik ere, bere posibilitate-baldintzen baitan, Simonek bere desioen lorpena bilatzen du, idazketaren berariazko jardunaren bidez.

#### **4. Ondorioak**

Simoneren idazkien bidez, emakumeek presondegietan jasan ohi dituzten arazoetako batzuen berri izan dugu, horiek atzerritarra izatearen ondoriozko bereizkeriekin nola korapilatzen diren ere ikusita –nahiko labur eta hurbilpen moduan izan bada ere–. Bestalde, zailtasun horiei guztiei –neurri batean, bederen– aurre egiteko berariazko praktiketako bat ezagutu dugu; idazketa, hain zuen ere. Horrela, ikuspuntu biktimizatzaileak alboratuta, mahai gainean gelditu da emakume presoek erresistentzia-praktikak gauzaten dituztela espetxealdiko desabantailei aurre emateko. Jendartearen gehiengoak uste duenaren kontrara, emakume atxiloek euren egoeraren inguruan hausnartzen dute, gertatzen zaiena aztertzen eta ulertzen dute, gaitasun berriak ikastearekin zein betetzearekin batean; itxialdiaren eta askatasun-gabetzearen ondorioak hala nola aldatuta, edo, gutxienez, arinduta. Arestian esan bezala, presondegietako mugak egiazkoak dira, eta, dudarik gabe, ez dira nolana hikoak, gizarteko testuinguru murriztaileenetako bat baita –murriztaileena ez bada–. Ezinbestekoa da arazoak eta gabeziak salatzea, baina baita horien aurrean emakume presoak geldirik ez daudela azaleratzea ere. Erresistentziaren aukera presente dago beti; anitzak, dinamikoak eta sortzaileak diren jardunbideen bidez. Marko okerrenetan ere, han dago agentzia.

#### **5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea**

Artikulu honetan jasotakoak bukatu berri dudan doktore-tesiaren zertzelada orokor batzuk izan dira. Etorkizunera begira, ikerketaren zenbait alderditan gehiago sakondu nahiko nuke, Euskal Herrian kokatutako presondegietan gertatzen diren diskriminazioetan barrenduta, azken



urteotako aldakuntzak miran; eta, halaber, giltzapetutako emakumeen agentzian murgilduta, haien ekintza- eta eraldaketa-ahalmenei buruzko hutsunea gainditzeko asmotan. Urratsez urrats, espetxe-sistemaren bidegabekeriengatik inguruko ezagupena areagotu nahi dut eta ekarpenen bat egin emakume preso sozialei buruzko bestelako ikuspegiengatik hedapenean; betiere, errespetua, aintzatespena zein elkartasuna oinarri hartuta, baita ñabardurei helduta ere. Ardatz dut aktore sozialak euren bizitzan funtsezko protagonistak direla, nahiz eta, batzuetan, ekintzarako eta eraldaketarako aukerak gutxiagotzen dituzten testuinguruetan egon.

## 6. Erreferentziak

- Adler, F. (1975): *Sisters in Crime*, McGraw-Hill, New York.
- Aebi, M.; Delgrande, N. (2013): *Council of Europe Annual Penal Statistics SPACE I*, University of Lausanne, Suitza.
- Alcedo, M. (1996): *Militar en ETA. Historias de vida y muerte*, Haranburu, Donostia.
- Almeda, E. (2003): *Mujeres encarceladas*, Ariel, Bartzelona.
- Al'Sadawi, N. (1995 [1988]): *Memorias de la cárcel de mujeres*, Horas y Horas, Madril.
- Arbelaitz, M.; Bengoetxea, E.; Méijome, A.; Ruiz, M.; Vara, L. (2012): *Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía*, argitaratu gabeko ikerlana.
- Aretxaga, B. (1995): Dirty Protest: Symbolic Overdetermination and Gender in Northern Ireland Ethnic Violence, *Ethos*, 23(2), 123-148.
- , (1996): ¿Tiene sexo la nación? Nación y género en la retórica política sobre Irlanda, *Arenal*, 3(2), 199-216.
- , (1997): *Shattering Silence: Women, Nationalism, and Political Subjectivity in Northern Ireland*, Princeton University Press, New Jersey.
- Bhavnani, K.; Davis, A. (2007 [1996]): Mujeres presas, estrategias de transformación, in B. Biglia eta C. San Martín (koord.), *Estado de Wonderbra. Entretejiendo narraciones feministas sobre las violencias de género*, Virus, Bartzelona, 197-215.
- Bosworth, M. (1999): *Engendering Resistance*, Ashgate, Aldershot.
- Cabrera, L. (2011): *Obligado tic tac*, Bécame y punto, Buenos Aires.
- Carlen, P. (1983): *Women's Imprisonment. A Study in Social Control*, Routledge and Kegan Paul, Londres.
- , (1985): *Criminal Women*, Basil Blackwell, Oxford.
- , (1988): *Women, Crime and Poverty*, Open University Press, Oxford.
- Cuevas, T. (1985): *Cárcel de mujeres (1939-1945)*, Sirocco, Bartzelona.
- Curcio, R. (2011): Donde todo comenzó, in D. Malventi (koord.), *Umbrales. Fugas de la institución total: entre captura y vida*, Universidad Internacional de Andalucía, Sevilla, 14-20.
- Davis, A. (1972): *Si llegan por ti en la mañana... vendrán por nosotros en la noche*, Siglo XXI, Madril.
- Davis, N.; Faith, K. (2002): Las Mujeres y el Estado: modelos de control social en transformación, *CODHEM*, 26, 90-102.
- Del Val, C.; Viedma, A. (2012): *Condenadas a la desigualdad*, Icaria, Bartzelona.
- Dobash, R.P.; Dobash, R.E.; Gutteridge, S. (1986): *The Imprisonment of Women*, Basil Blackwell, Oxford.
- Doña, J. (2012 [1978]): *Desde la noche y la niebla*, Horas y Horas, Madril.
- Eaton, M. (1986): *Justice for Women? Family, Court and Social Control*, Open University Press, Filadelfia.
- Eizagirre, E. (2016): *Alde erantzira nabil*, Susa, Zarautz.
- Falcón, L. (1977): *En el infierno: ser mujer en las cárceles de España*, Ed. de Feminismo, Bartzelona.
- Forest, E. (1995 [1975]): *Diario y cartas desde la cárcel*, Iru, Hondarribia.
- , (1979): *Testimonios de lucha y resistencia: Yeserías 75-77*, Hordago, Donostia.
- Heidensohn, F.M. (1985): *Women and Crime*, Macmillan, Londres.
- Heras, P. (2014): *Poeta muerta*, Ediciones Capiro, Bartzelona.
- Herrera, M. (1993): Mujeres y prisión, *Cuadernos de política criminal*, 49, 339-354.

- Imaz, E.; Martín-Palomo, T. (2007): Las otras otras: extranjeras y gitanas en las cárceles españolas, in B. Biglia eta C. San Martín (koord.), *Estado de Wonderbra. Entretejiendo narraciones feministas sobre las violencias de género*, Virus, Bartzelona, 217-227.
- Juliano, D. (2004): *Excluidas y marginales. Una aproximación antropológica*, Cátedra, Madril.
- , (2009): Delito y pecado. La transgresión en femenino, *Política y Sociedad*, 46: 1-2, 79-95.
- , (2011): *Presunción de inocencia*, Gakoa, Donostia.
- Kerman, P. (2014): *Orange is the New Black*, Círculo de Lectores, Bartzelona.
- López Riaño, I. (2012): *El Umbral del Dolor*, Autodefensa Taldea, Gasteiz.
- Nari, M.; Fabre, A. (2000): *Voces de mujeres encarceladas*, Catálogos, Buenos Aires.
- Ortner, S.B. (2006): *Anthropology and Social Theory*, Duke University Press, Durham.
- Palou, I. (1975): *Carne apaleada*, Planeta, Bartzelona.
- Retolaza, I. (2014): Kartzela-kronikak eta kartografiak. Subjektu kartzelatutik kartzela-subjektutantz, in M. Ormazabal, *Hemen naiz, ez gelditzeko baina*, Txalaparta, Tafalla, 141-162.
- Ribas, N.; Almeda, E.; Bodelón, E. (2005): *Rastreado lo invisible*, Anthropos, Bartzelona.
- Shakur, A. (2013 [2001]): *Una autobiografía*, Capitán Swing, Madril.
- Smart, C. (1976): *Women, Crime and Criminology*, Routledge and Kegan Paul, Londres.
- Walmsley, R. (2012): *World Female Imprisonment List*, ICPS, Londres.

## 7. Eskerrak eta oharrak

- Artikulu honetan aipatutako doktore-tesia, *Kartzela genero-erakunde bezala: genero-bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia Euskal Herrian espexeratutako emakumeen artean*, Mari Luz Estebanen zuzendaritzapean egin dut; Eusko Jaurlaritzaren doktoretza-aurreko programako beka baten bitartez (2013-2016).
- Doktore-tesiaren abiapuntu izandako ikerlana, *Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía* (2012), Emakunde ikerketa-beka (2011) baten bidez egin genuen. Taldekide izan nituen Miren Arbelaitz, Edurne Bengoetxea, Alma Méijome eta Laura Vara.
- Artikulu honetan landutakoaren bertsio luzeago bat argitaratuta dago: Ruiz Torrado, M. (2016): Murrua murru (besterik ez) denean. Kartzelatutako emakumeen erresistentzia-praktikak aztergai, in M.L. Esteban eta J.M. Hernandez (koordk.), *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*, UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea, UEU Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 103-119.